

Maite Aristegi

Bergara, 1962. Herri horretako Goiauzoko Lamaño-Etxeberri baserrian jaioa. Baserritarra sortu –bost neba-arreba izaki– eta bertan ari da gaur egun. Bi alaba ditu. Ardiak eta behiak hazten ditu neba gazteenarekin, baita jaiotetxearen izen bereko landa turismoa kudeatu ere. Baserrian arituz, euskara irakasle lanak eta abokatu ikasketak egin zituen behiala. Zinegotzia (HBren izenean) eta EHNEko idazkari nagusi ohia. Kolore anitzen distira du Maite Aristegik: Elkarri/Lokarri, Milakabilaka, Nazio Eztatidagunea... 18/98 + lan taldearen eledun ageri zaigu azkenaldion.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Judit Fernandez



«Arriskurik handiena une honetan apatia da»

EHNEko idazkari nagusia izateak markatu ei zuen Maite Aristegi: “EHNE sindikatuan iritzi guztietako baserritarrak gaude, anitza da. Guztion irizpidea ordezkatu behar duzu. Zeregin horretan malgutasuna landu nuen eta asko ikasi” esan digu. Lamaño-Etxeberri ari gara berbetan. Bere ingurumaria azpiegitura berriek orbainez josia ageri da, eguzkia lainoa urratu nahian ari dela. AHTk zabalduko duen kremlera irudikatu dugu lipar batez: “Ingurua zeharo txikituko du AHTk. Bailara estua da eta hainbat baserrietako lurrak zatituko ditu. Angiozar auzoan txikizioa erabatekoa izango da, imajinaezina. Proiektua txikitzailea dela diogu horregatik”.

Azpiegitura hauek gabe ere, aurrera egiteko nahiko lan bide dauka nekazaritzak. EHNE une ahulean ikusten du gainera: “Europako birmoldaketa politikak era ezkorrean eragin du sindikatuan. Krisian gaude, baserria nola sindikatua, berritu beharrean. Indarrak batu behar ditugu erronkei sendo eusteko. Gipuzkoako Kongresuaren atarian gaude. Sindikatua indartsua ateratzea espero dut Euskal Herri osoan berpiz dadin. Nekazaritza une oso zailak pasatzen ari da, honoa jotzear gaude baserritarrok”.

Baserritarraren senari jarraikiz, lan eta lan, zuk aurrera beti ere. Herrigintzan ere halaxe.

Saiatzen naiz inguruko ikuspegiak aztertzen eta neure pentsaera izaten. Ezagutu ditudan ekimen guztietatik ekarpenak jaso ditut. Gure herrian trintxera asko dago tamalez. Horiek hausten eta bestaldean dagoenaren ikuspegia hartzen saiatu behar dugu.

Zaila nork bere printzipioei eustea hala ere. Zein dira zureak?

Ni independentista naiz. Euskal Herria bere buruaren jabe nahi dut. Horretarako bidea jorratu eta herriari zer nahi duen galdetu behar zaio. Lurraldetasunaren gaia ere tarteko dela. Zaila dela kontzientea naiz, egun batean ezin dela hori ebatzi, denbora behar dela jakitun naiz, baina horretarako aukerak zabalik

18/98 + LAN TALDEAREN ESPERIENTZIA KRONOLOGIKOA

“Orain arteko ardurarekin segitu behar dugu lanean”

KURSAALEAN AURKEZTU GENUEN EKIMENA ORAIN HIRU URTE. Ezpata buru gainean zutela deitu zidaten auzipetu batzuek. Pertsona hauek deliturik ez zutela egin garbi zegoen, epai-keta politikoa zela. Horietako asko ezagutzen nuen, Jose Luis Elkoro dut kasu hurbilena. Pertsona zoragarria da.

BILTZEN GINTUZTEN PRINTZPIOAK OSATU GENITUEN. Ekimen oso aberasgarria izan da. Egijara jo dugu, manipulazioak saihestuz eta interesak alde batera utziz. Zigortuek pentsaera ezberdinak dituzte hainbat gaitan, hori nabari daiteke haiekiko harremanetan, baita 18/98 + lan taldean ere.

BELDUR DIRA: BANAN-BANAN EPAITU EZINEAN, DENAK BATERA. Espektakulua sortu zuten, azken eszenaratzea atxiloketa masiboa izaki. Zigortuek azken bederlatzi urteotan bizitza normala egin dutela badakite. Haiekiko jarrera bortitza handitzen du detaile horrek. Oldartze moduko bat izan da, guardia zibilen aldetiko umilazioa pairatu dute. Estatuko indar

horiek beldurra dute. Hitza eta erabakia ukatu nahi dizkiote herri honi.

EGIN IRAKURTZEA NAHIKOA DA BERAU IXTEKO ETA ZIGORTZEKO. Edo desobedientzia zibilaren arlo guztiak ETArenek direla esatea, ETAK agiri batean desobedientzia zibilaren bidez Estatu kolokan jar daitekeela esan duelako! Zigor guztiak dira nabaritzekoak: nazioartean edo euskararen aldeko ekimen zilegiak, besteak beste. Txapela kentzeko moduko lan eskergea eta borondatekoa egin dute. Lan horiek ETArenek direla ondorioztatzea izugarrikeria da.

DENAK LIBRE IKUSTEKO HELBURUAREKIN EGIN GENION LANARI. Eta orain epaia mahai gainean ikusita, helburua ez dela bete ikustea gogorra da. Herritar hauek aske izan behar dute, burutu dituzten lanak zilegi direlako, hala ere, egin dituzten lanengatik espetxeratuta daude, zigortuta, debekatuta... Orain arteko ardurarekin segitu behar dugu lanean.

izan behar dira. Zubiak eraikitzen joan behar dugu. Zubigile lan horretan kokatzen dut nire burua. Pertsona guztien eskubideen defentsak batu behar gaituela pentsatzen dut era berean, pertsonari nahiz herritarroi dagozkigun eskubideak.

18/98 auziaren epaia hizpide: 52 epai-tuetatik 47 zigortuta daude. Ustekaberi hartu al duzu?

Hain inuzenteak ez gara. Prozesua helburu politiko batekin jarri zen martxan: Euskal Herria askearen alde lan sozio-politiko egiten duten sektoreak zigortu nahi zituzten ezker abertzalearen eremu zabala deusezteko: jendea beldurtuz, baztertuz eta hautsiz... Makro-sumarioak helburu politikoak zituela jakinda, egoera politikoak ere eragingo zuela kontzienteak ginen. Egia da, zitekeen epai txarra izan da, inork ez zuen hain txarrik espero. Fiskalak berak eskatua baino zigor handiagoak ezarri zai-zakie. 600 urteko zigorrak ikaragarriak dira. Epai-ketak aurreikuspen eta muga guztiak gainditu ditu.

Auzitegi Nazionala ageri da berriz ere. Auzitegi hau zigortzeko baita, ez justizia egiteko. Ezin da epaiketa izan denik esan, zirkutik hurbilago izan da auzitegitik baino. Epai-ketari zelofan juridikoa ezarri diote, inork ez du zigortzeko frogarik ikusi. Pertsona hauek zigortzeko itxurakeria antolatuta dute.

Garzon epailearen teoria indartu da.

Bere teoria errotu da: dena ETA da, “entorno” delakoan edonor izan daiteke ETAKoa, berak jakin gabe ere. Argudioak hain dira burugabeak eta euskarririk gabekoak... ez dutela nondik heldu. Auzia ilustratzeko erabilitako argudioak hankaz gora bota dituzte defentsako abokatuak. Finean mendekuaren politika erabili dute, ez dago justiziarik errebantxa baizik. Zuzenbide estatuak herritarra defen-

“Ezin da epaiketa izan denik esan, zirkutik hurbilago izan da auzitegitik baino. Epai-ketari zelofan juridikoa ezarri diote, inork ez du zigortzeko frogarik ikusi”

datzeko behar luke. Irailaren edo martxoaren 11ko auzietan, estatua sarraskiak burutu zituztenen eskubideak defendatzen saiatu da. Kasuon ez da horrelakorik izan, epai-tuek ez dute babes hori izan.

“Prebrikazioa” hitza ere erabili duzue epaia ezagutzerakoan.

Frogarik gabe zigortu baitute. Abokatuak epaia aztertzen ari dira eta helegiteak jarriko dituzte.

Udalbiltza, AABB, *Egunkaria*, Batasunaren sumarioak zabalik daude. Nola ikusten duzu geroa?

Kezka izugarriarekin. Epai honek bide bat markatu du. Auzitegi Nazionalak eta inguruko botere politikoek bide beretik jarraituko dutela ematen du. Hori da gure kezka eta lan talde bezala planteatzen zaigun galdera da: zer egin behar dugu orain? Orain arte zigortuen defentsa sostengatzen saiatu gara, babes batzuk lortu ditugu. Ez nahi genituen bezainbat. Ez dagoenak, berak jakinen du zergatik ez dagoen. Lan egiten eta erantzuten segitzea beharrezkoa ikusten ditut.

Auzipetuek lanuztera eta manifestaztera deitu zuten epaia ezagutu aurretik. Nola ikusi duzu erantzuna?

Nik gehiago espero nuen. Hainbeste urtetan lan egin ondoren, egoera hain larri baten ondoren, pauso tinkoagoa emateko kapaz ez izateak pena eman dit. Halako muga estuetan gabiltza, alderdiak eta instituzioak estu dabilta, eragile bakoitzak dituen mugak dira, aipatu trintxerak hor daude. Malgutasunez eta zabaltasunez jokatzeko ikasi behar dugu, beldurrik gabe. Alderdi eta eragile politikoak beldur gehiegiz mugitzen dira. Oso itxita daude.

Zirkuluaren edo zaldiko-maldikoaren egoera errepikatu dela dirudi. Hau ikusita dugu jada.

Maite Aristegi

“Norbanakoen eskubideen
une beltzean gaude eta hau
politikoki konpondu behar
da. Beraz, politikariek
heldu diezaiotela
zezenari adarretatik”

Zoritxarrez egoerak eta prozesuak errepikatzen ari dira. Ezintasunean geratzen ari garelako herri ekimenek gero eta garrantzitsuagoak izan behar dute, ordea. Alderdien eta eragileen arteko mugak gainditu behar ditugu, zubiak eraiki eta bideak zabaldu. Ideologia edo alderdi batean kokatuak izan arren, bakoitzak aske izan behar du eskua luzatzeko eta beste ekimen batean aritzeko.

Eusko Jaurlaritzatik gehiago espero al zenuten?

Bai. Auziari gogo gehiagoz helduko ziola uste genuen, bigarren mailan aritu da. Gehiago egin behar luke.

Joseba Azkarraga izan da Jaurlaritzaren bozeramale kasuan, ez Miren Azkarate... Zer deritoxozu?

Horren adibidea izan daiteke.

Bilboko prentsaurrekoan alderdi eta eragileek egoeraren diagnosi bateratua egiten dutela dirudi, baina egoera sendotzeko errezetarik ez dute.

Prentsaurrekoan eragile politikoei deia egin genien, hau ez dela auzi juridikoa politikoa baizik esan genien. Auziaren helburua politikoa dela, horren lekuko epaia, gordina. Norbanakoen eskubideen une beltzean gaude eta hau politikoki konpondu behar da, beraz politikariek heldu diezaiotela zezenari adarretatik.

Batasunak EAJren eta NaBairen aurkako kritikak egin ditu auzia hizpide.

Zaila zait 18/98 + taldeko kide bezala ezer esatea. Guk erantzuna irmotu behar dela diogu eta diskurtsoetik ekintzetara pasa. Diagnostik egitera gaituzko hau sendatuko duen errezetara pasa behar dugula. Une honetan daukagun arriskurik handiena apatia dela adierazi diegu alderdiei. Lan taldearen ibilbidean ere azaldu dugu hori, ezin dugu bes-

“Alderdien eta eragileen arteko mugak gainditu behar ditugu, zubiak eraiki eta bideak zabaldu. Ideologia edo alderdi batean kokatuak izan arren, bakoitzak aske izan behar du eskua luzatzeko eta beste ekimen batean aritzeko”.



taldera begiratu: apatiak eta neutro izateak ez dute balio. Eskubide batzuk badaude eta ez dira errespetatzen. Eskubide horiek asko kostatu zaigu lortzea eta bermatzen ez diren bitartean denok gaude hankamotz eta besamotz. Politikariek, diagnostik bat datozenek, beren esku daukate mugitzea. Badakit zailtasunak dituztela baina elkartu behar dute.

Konstituzionalistek epaia demokrazien justiziaren araberakoa dela diote.

Konstituzioa onartzen duenak badaki Konstituzioaren hainbat artikulua hankaz gora botatu dituztela epaiketa honetan. Konstituzioa sutara botatu dute. Ez dute berau errespetatu.

Horietakoz batzuk kritikoak dira epaierekin, edo hala diote. Epaia ETA dagielako gertatzen dela diote halaber. ETA existitzeari egotzi diote epaia.

ETA hori izanda ere, ezin da argudio hori erabili. Ezin da ekintza baten

aurka joateko beste zigor bat erabili. Mendeku politika sistema penaletik ateratu behar da. Une honetan zigor sistema mendekuan oinarrituta dago. Hori izugarrikeria da.

Egoerak lainoan segitzen du, eguzkiaren argia nondik ateratu gabilta.

Naturaren izotz beltza ezagutu dugu aste hauetan. Ikusten ez den izotz beltza, gure eskubideen eta askatasunaren gainean izotz beltza erortu da, eta momentu larria eta gordina da. Enfrentamendua eta konfrontazioa bizi-bizirik daude, indarrean, eta gainera epaiketaren emaitza hau. Latza da. Uneon kostatu egiten da argi izpiak ikustea, goxotasun hori edukitzea, baina elkartasun moduko mezu bat helarazi nahi dugu. Zigorak izan direnei hasteko. Hoztasun horretan elkartu behar dugula goxotasun pixka bat emateko. Laino artean bada ere, herriak babestuta eta elkartuta, politikariek erantzun bat eman behar diote egoerari. ■